



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Bizikidetzarako zubiak eraikiz

Lantzean behin, haurrei esan izan diet hemen gerra bat izan genuela aspaldi, beren aitona-amonak txikiak zirela. Gerra hori, gainera, galdu egin genuela esaten diedanean, ordurako erne-erne dauden begi txikiak saltoka hasten dira.

Azkenekoz, Gernikako bonbardaketaren urteurrenaren harira aipatu nien gerra hori 5 urteko ikasleei. Adi-adi zeuden ikasleetako batek berehala esan zuen: «baina gure etxean ez zen izan». Beste batek, hegazkinetatik «bonbillak» bota zituztela esanez azaldu zuen gertatutakoa. Nork bere erara interpretatu zuen.

Ikasle zaharragoek egindako Picassoren artelana ikustera joan ginen gero. Horma-irudi handiaren aurrean, gerraren horroreaz jabetzen nabaritu nituen, pixkanaka, anabasa zuri-beltzean gorputz atalen bat aurkitzen zutenean edo zerura luzatzen ziren oiho lazgarri haiek ia-ia entzun zitzaizketenean. Azkar jo zuten begiz izugarrikeria hartatik ihesean zihoan txoria. Beren begietara, bonbek ez zuten lortu hura harrapatzea eta sarraski hartatik ihes zihoan hegana.

Zer ote da gerra haurren begietara? Zer telebistatik, hedabideetatik edo hainbat jolasetatik iristen zaizkien irudietatik harago? Zer beren bizitzan hain presente egon arren helduok, akaso, hain gutxi aipatu edo haiekin partekatzen duguna?

Eskolara datozkigun ikasle askok gerra eta era guztietako gatazken hainbat alde bizi eta ezagutu dituzte dagoneko. Gehienetan, ordea, beren galbahetik soilik pasatzen dute ikusitakoa edo entzundakoa. Bonbardaketak, suntsiketa, heriotza, ihesi doazenen ilara luzeak, gosea, kartzela... Zenbat ikasgeletan eta zenbatetan lantzen ote dugu gerra, baina? Zenbatetan laguntzen ote diegu ikasleei ikusitakoa ulertzen, egoki interpretatzen eta prozesatzen?

Eskola, sarritan, zenbait gairekiko aseptikoezia delakoan nago. Gai zailak, konprometituegiak, igual, saihestu egiten dituela. Eskola programa askotan zurruneziak ipar hartuta, heziguneetatik at gertatzen diren –gure zenbait ikasleren etxeetan oso urrun joan gabe–

egoera gatazkatsuei, elkarbizitzako era guztietako urraketei, ezikusiarrena egiten die.

Errenteriako Orereta Ikastolak, hezkuntza ekimen interesgarria jarri du abian. Ekimen horrek, hezkuntza eremua eta hezkuntza komunitatea izan ditu protagonista nagusiak.

Elkarlanean eta elkarbizitzan oinarria duten lau zubi eraikitze ariketa egin dute. Eraikuntza horretan, justizia, tolerantzia, errespetua, elkartasuna eta antzeko balioak erabili dituzte, batez ere.

Zubi bat etxe barruan eraiki nahi izan dute: ikastolako hezkuntza komunitateko partaide diren ikasle, langile eta familien artean, hain justu.

Beste bat, Hendaia Gure-Ikastola, Biriaturko eta Ziburuko Kaskarotenea ikastolekin. Horretarako, eremu askotan eragiteko bokazioan oinarritu den lankidetzaren hitzarmena sinatu dute.

Hirugarrena, iraganeko historian dugun orube lohitua eta etorkizun bidezkoago eta libreago izango dituen lurralde oparoa lotu nahi dituen zubiak. Horretarako, 36ko altxamendu faxista

ekarri dute gogora. Eta Gernikakoa herritarren kontrako historiako lehen aire-erasoa izan zela uste genuenontzat argitara ekarri dizkigute Libia, Rif (Maroko), Durango eta Gernika, Dresden (Alemania), Hiroshima eta Nagasaki, eta Vietnam. Haien ondoan, egundo luzatzen doan zerrenda jarri dute: Afganistan, Siria, Palestina...

Laugarren zubiak, Errenteriako eta eskualdeko errealtate anitzei begira jarri eta eginga.

Orereta Ikastolaren hezkuntza ekimen hori eskola gaurkotasunera hurbiltzeko –munduan benetan gertatzen ari dena– eta interpretatzen laguntzeko ariketa interesgarria izan da. Guretik abiatuz, memoriari atea ireki eta etxean gertatu zitzaiguna gogoratuz, gaur munduari begira jartzeko saiakera, hain justu.

Ekimen xume horretan hezigunea herritarrekin aritu da elkarlanean, herrian eragiten saiatu da, herritarrekin auzolanean elkarbizitzan sakonduz. “Elkarrekin bizitzen eta lan egiten” konpentziaren garapen ederra egin dute Errenterian, eskola eta herriaren arteko elkarlan ezinbestekoa biribilduz. •



Orereta Ikastolak hezkuntza ekimen interesgarria jarri du abian.

Andoni Canellada | ARGAZKI PRESS